

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak finantzakoa ez den 3.384,49 milioi euroko gastu-muga onetsi du 2013rako

2013rako ezarritako gastu-muga 2012koa baino % 7,31 txikiagoa da, Nafarroako Gobernuak AHTagatik egindako aurrerakina deskontatu ondoren

Miércoles, 29 de agosto de 2012

Nafarroako Gobernuak 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak lantzeko jarraibideak onetsi ditu gaurko bilkuran. Onetsitako testuak jasotzen duenez, [finantzakoa ez den gastu-muga 3.384,49 milioi eurokoa izango da](#). Zifra hori 2012ko aurrekonturako (3.711,60 milioi euro) jarritako gastu-muga baino % 8,81



Fachada del Palacio de Navarra.

txikiagoa da, nahiz eta diferentzia % 7,31 arte jaisten den Nafarroako Gobernuak Abiadura Handiko Trenagatik egindako ekarpena deskontatzen bada, eta finantzakoa ez den gastu-muga 3.316,01 milioira eramaten duena 2013rako; 2012an, berriz, 3.577,60 milioikoa izan zen.

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea Zubelzuk prentsaurrekoan azaldu ditu gastu-muga hori ezartzea eraman duten xehetasunak, egungo egoera makroekonomikoan eta datorren urterako aurreikuspenen oinarrituta daudenak. Gainera, aipatu du Departamentuak finantzakoa ez den gastu-muga hori kalkulatu duela Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantza Iraunkortasuneko Lege Organikoan jasotako jarraibideei segituz, % 0,7ko gehieneko defizitaren ondorio dena. Informazio-ekitaldi horretan ere parte hartu du bigarren lehendakariorde eta Gobernuko eledun Juan Luis Sánchez de Muniáin-ek.

Nafarroako Gobernuak iragartzen du Nafarroak 2012a % -1,5eko hazkundearekin amaituko duela; hortik aurrera, 2013ko proiektio makroekonomiko bat egin da norabide gisa balio duena Nafarroako Aurrekontu Orokorrak lantzeko. Bertan BPGa % -1,2 uzkurtuko dela kalkulatu da, enplegu-mailak % 2,4 jaitea eta prezioak % 1,7 igotzea.

Egoera makroekonomiko horren arabera, Nafarroako Gobernuak zergen eta tasen bidezko diru-sarrerak 3.178,75 milioi eurokoa izatea espero du. 2012ko gastu-muga ezartzean egin ziren diru-sareren kalkuluekiko % -6,72ko aldea litzateke.

Defizitari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ekitaldi honen amaieran % 1,5 murrizteko konpromisoari eusten dio (257,5 milioi euro), eta Politika Fiskal eta Finantzarioaren Batzordean erabakitako aurrekontuaren egonkortasunaren bidea betetzeko konpromisoari, 2013an % 0,7ko helburua jartzen duena. Hala, datoren urterako defizit-iragarpena 131,06 milioi eurokoa da.

Azkenik, Kontabilitate Nazionaleko Doikuntzak 74,68 milioi euroan finkatzen da 2013rako. Kopuru horretatik, 6,2 milioi Pirinioetako Autobidearen eta Nafarroako Ubidearen Zonalde Ureztagarriaren amortizaziotik dator eta 68,48 milioi Nafarroako Abiadura Handiko Trenaren obregatik egindako aurrerakinetik.

Hiru kontzeptu horiek batuta (3.178,75 milioi tasetatik eta beste diru-sarrera batzuetatik lortutakoak; 131,06 milioiko defizita; eta 74,68 milioi Kontabilitate Nazionaleko Doikuntzetatik), aurrez aipatutako finantzakoa ez den 3.384,49 milioiak lortzen dira.